

ATEAK ZABALIK

2023/03/24



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO



Ekitaldiaren Ingurumen-Adierazpena.

Argitaratzailea:

Eusko Legebiltzarra - Parlamento Vasco.

Becerro de Bengoa kalea, z.g., 01005 Vitoria-Gasteiz (Araba)

www.legebiltzarra.eus

Tel.: 945 00 40 00

Edukia:

Intergaiak-ek egindako dokumentua.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko apirilaren 25a

AURKIBIDEA



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

Aurkezpena

4

Erronka Garbia

6

Ingurumen-hobekuntzak

8

Komunikazioa

14

Ingurumen-inpaktuak

15


Emaitzak

16

Hobetu beharreko arloak

16





Dantza Eusko Legebiltzarrean. COVID-19ak eragindako nahitaezko geldialdiaren ondoren, aurtten Eusko Legebiltzarraren ate irekien egunari berriz ekin zitzaion, martxoaren 24an.

2.000 lagunek baino gehiagok hurbildu nahi izan zuten euskal ganberara; hark **43 urte betetzen zituen ireki zenetik**.

Jardunaldiko ekitaldiak **jasangarritasunaren** ingurukoak izan ziren, eta ez ziren falta izan **dantza- eta kultura-ikuskizunak**.

Goizeko hamarretan **ireki zituen ateak Eusko Legebiltzarreko lehendakariak**.

Bertaratuak agurtu ondoren, **Iñaki Palacios & The Gaelsek, DAB euskal dantza-taldearekin batera**, hogeita hamar minutuko saio hunkigarria egin zuten jardunaldiari hasiera emateko.

Magiak ere ez zuen huts egin ekitaldian. **Tor eta Eriz** ilusionistek emanaldiak egin zituzten eskole-tako elkarte eta taldeentzat, betiere iraunkortasunaren eta birziklatzearen testuinguruan.



Ondoren, **Iryna Aleksiychuk pianista ukrainarra-
ren** eta haren herri-abestien txanda izan zen, eta ikusleei gozarazi zien bere folklorea eta herri-abestiak lagun.



Bisita gidatua “Florida parketik Eraztun Berdeko lorategi botanikoraino”: edizio honetan, bisita botaniko gidatuak programatu ziren, **Ingurumen Ikerketarako Zentroak (CEA) antolatuta.**

Haietan, herritarrek hiriko **biodibertsitateaz, faunaz eta floraz** disfrutatu ahal izan zuten, baita parke enblematiko honen historiaz ere; gunek **duela gutxi berrehun urte bete ditu.**

Dantza-ikuskizunen artean, honako hauek nabarmendu ziren:

- * **Dardaragunek** dantza urbanoen remix bat eskaini zuen, reggaetoi eta hip hop erritmoekin.
- * **José Uruñuela Udal Dantza Kontserbatorioko ikasleek** publikoari atsegin eman zioten dantza-koreografia hunkigarriekin.
- * **The Bounce** taldea arduratu zen ekitaldiaren jai-espirtua swing erritmoan kutsatzeaz.




Aurten, txikienek ate irekien jardunaldiaz gozatu ahal izan zuten **Eko Txoko Txikian**, haientzat bereziki sortutako espazio bat.

'ERRONKA GARBIA'

Legebiltzarrak ingurumena zaintzeko duen konpromisoa argi geratu da aurten ere. Horrela, euskal erakundeak azken urteetan hartutako neurriei eusten die:

- * Eraikinen estalkian plaka fotovoltaikoak instalatzea.
- * Ibilgailu elektrikoentzako kargagailuak integratzea.
- * Energia, erregai eta hondakinen erabilera murriztea.
- * % 100 berriztagarria den energia birziklatzea eta erostea.



Eusko Legebiltzarraren ate irekien jardunaldian, "Erronka Garbia" zigilua jarri da; Eusko Jaurlaritzaren IHOBEn ziurtagiria da, eta bermatzen du ekitaldien diseinuan, antolaketan eta bizi-ziklo osoan ingurumen-neurriak aintzat hartzen direla.

'Erronka Garbia' ziurtagiriak oinarri hauek ditu:

1. Kutsatzaileen prebentzioa.
2. Gardentasuna.
3. Sentsibilizazioa.



**ERRONKA
GARBIA**

INGURUMEN ALDETIK
JASANGARRIA DEN
EKITALDIA

Horretarako, **sei jarduera-ardatz ditu:**

- * **Mugikortasuna**
- * **Energia**
- * **Ura**
- * **Erosketak**
- * **Azpiegiturak**
- * **Hondakinak**



Ingurumen-inkaktu posibleak ebaluatu ondoren, honako hau erabaki da:

- * Jardunaldiak "Erronka Garbia" ekitaldia direla jakinaraztea;
- * Berotegi-efektuko gasak (BEG) murriztea;
- * Birziklatze-tasa handitzea;
- * Eraikineko energia berriztagarriak eta ur-iturriak balioestea;
- * Tokiko ekoizleei erostea (catering-a/merchandising-a);
- * Material jasagarriekin egindako azpiegitura berrerabilgarriak sartzea;
- * "Erronka Garbia" ingurumen-gaiarekin lotutako jarduerak sartzea.



INGURUMEN-HOBEKUNTZAK





MUGIKORTASUNA

Mugikortasunak sortzen du nagusiki **karbono-aztarna, erregai fosilek** gure ingurunean sortzen duten ingurumen-inpaktuaren eraginagatik. Ate irekien egunean eragin hori saihesteko, honako ingurumen-hobekuntza hauek txertatu ziren:

Mugikortasun-inkesta

Hirurogeita hamar inkesta baino gehiago egin ziren Eusko Legebiltzarraren sarreran, eta bisitari bakoitzaren jatorriari buruzko datuak jaso ziren, hautatutako garraiobideez gain.



Partekatutako autoa gailentzen da banakako garraio-erabileraren aldean.

% 85 garraio Iraunkorrean iritsi zen, eta **% 75**, oinez.

Mugikortasun iraunkorrari buruzko sentsibilizazioa

Ekitaldiaren xehetasunak eta programazioa prentsan zabaldu ziren, eta **bereziki azpimarratu ziren iraunkortasuna eta "Erronka Garbia" ziurtagiria.**




Energia-kontsumoak (argiztapena, soinua, etab.) eragina izan zuen; eragin hori ekoizpenaren eta kontsumoaren arabera aldatu zen. **Eraikinean sortutako energia fotovoltaikoaren garrantzia azpimarratzekoa da, ekitaldirako energia berriztagarria ekarri baitzuen.**



Energia % 100 berriztagarria eta autokontsumo fotovoltaikoa:

Eusko Legebiltzarrean kontsumitutako energia guztia % 100 berriztagarria da, eta eguzki-instalazio fotovoltaiko bat erabiltzen da.

Zehazki, martxoaren 24an, 2.181,16 kWh kontsumitu ziren guztira, eta horietatik 133,86 kWh autoekoitziak ziren, hau da, % 6,14.



Energia ardatzari buruzko sentsibilizazioa:

Eusko Legebiltzarreko aretoetako batean, **"Garapen iraunkorrekiko konpromisoa"** informazio-koadernoak banatu ziren. Haietan, eraikinean egindako ingurumen-hobekuntzako jarduketak deskribatzen ziren.



URA

Ur-kontsumoa optimizatzeko hartutako neurriei dagokienez, **hornidura-sareko ura sartu zen, kontsumoa murrizteko**. Gainera, eremua behar bezala seinaleztatu zen, haren erabilera arduratsua sustatzeko.

Sarera konektatutako ur-iturriak:

Plastikozko botilen erabilera saihesteko eta kontsumo arduratsua sustatzeko, antolatzaileek **ur hoztuko hainbat iturri jarri zituzten**.

Gainera, **ur hotzeko banagailuak** jarri ziren, kafe-tegira sartzen ziren bisitariak freskatzeko.

Ekipo osagarrietan **8,22 m³** ur kontsumitu ziren, hala nola bainuetan, txorrotetan, zisternetan eta banagailuetan.



Iturrien erabilerari buruzko sentsibilizazioa:

Segurtasuna eta osasuna ere nagusi izan ziren ekitaldian.

Protokoloko arduradunek **informazio-kartelak** jarri zituzten, iturriak behar bezala erabiltzeko moduari buruz.



Erosketen arloan, garrantzitsua da produktuen erosketak eta zerbitzuen kontratazioa izan zen. Funtsezkoa da **materiala berrerabiltzea eta hurbileko hornitzaileak kontratatzea**, ekitaldi jasangarria ziurtatzeko. Protokolo-taldeak erabilera bakarreko plastikoa murrizteko asmoa gauzatu zuen, eta erosketak ekitaldiaren beharretara egokitu zituen. Adibidez, hona hemen ate irekien egunean egin ziren hobekuntza batzuk:

Tokiko produktua eta 0 km:

Ekitaldirako **tokiko hornitzaileak** kontratatu ziren. Horren erakusgarri izan ziren salda eta txokolatea, ekitaldira bertaratutako guztiei oparizat emateko.

Bestalde, **muntatzaileek eta hornitzaileek kartel berrerabilgarrien** karbono-aztarna murrizten lagundu zuten.



Tokiko merchandising eta stock murrizketa:

Jardunaldietan eskainitako opari bakoitza **material jasangarri eta birziklatuekin** egin zen.

Horrela, paperezko edalontziek edo koardenoek bizi-ziklo luzeagoa dute.



Azpiegiturak ekitaldia egiteko **aldi baterako edo betiko ekipamenduak** hartzen dituzte barnean, hala no-la egiturak, altzariak, dekorazioa, argiztapena, soinua, seinaleak eta kartelak...

Azpiegitura berrerabilia

Ekitaldiaren azpiegitura guztia hurrengo urteetan berrerabiliko da. Kartoizko kartelak datorren urtean berriro ikusi ahal izango ditugu, programazio eta data berriekin binilozko beste inpresio bat gainjarrita.



Ibilbide birtualerako QR kodea duten pantailak

QR kodea zuten pantailak jarri ziren eraikinaren bisita birtualean sartzeko. Horrela, karteletan aurreztu zen, eta ekitaldian euskarri fisikoak saihestu ziren.

"Erronka Garbia" ziurtagiriari buruzko mezu sentsibilizatzaileak pantaila digitaletan proiektatu ziren, papera ez erabiltzeko.





Edukiontzi selektiboak eta seinaleztapen-kartelak



Eusko Legebiltzarrak **lan handia egin zuen hondakinen kudeaketarekin.**

Solairu bakoitzean, bederatzi edukiontzi inguru zeuden; guztira, hogeita zazpi. Horietako hiru hondakin mota jakin baterako ziren, **horretarako diseinatutako kartelen bidez seinaleztatuta.**

Berrikuntza gisa, **kafetegian andel bat jarri zen salda- eta kafe-hondarretarako;** horrela, edalontziak ez ziren nahasi baztertutako likidoarekin, eta paperezko birziklatze-tasa maximizatu zen.



Ekitaldian, **60,325 kg hondakin** sortu ziren, eta horietatik **% 71,5 birziklatu** egin ziren.




KOMUNIKAZIOA

Prentsa-oharrea

Ekitaldia antolatu bitartean, **Ekitaldi Jasangarriaren Politika** idatzi zen, eta prentsa-ohar batean zabaldu zitzaion hainbat komunikabideri.

Europa Press, Onda Vasca, Diario de Noticias, Deia eta abarrek jasangarritasunari buruz hitz egin zuten, eta jardunaldiak antolatzeko eta gauzatzeko orduan horrek duen garrantziaz.

Era berean, "Erronka Garbia" gaia ekitaldian sartu zen, **Eusko Legebiltzarraren pantailetan mezuak bidaliz eta jasangarritasuna protagonista gisa programatutako jardueren bidez**. Horren erakusgarri izan zen Eko Txoko Txikia edo Ecomagia ikuskizuna sartzea.



Florida parkera egindako bisita botanikoak

Ate irekien urteko jardunaldiaren berrikuntzetako bat **Ingurugiro Gaietarako Ikastegiak (CEA) antolatutako ibilaldiak izan ziren**.

Egunean zehar, **hiru irteera egin ziren Florida parkearen inguruan**: lehenengoa, 12:00etan; hurrengoa, 13:00etan, eta, azkenik, arratsaldeko 17:30etan.

Ingurumen-hezkuntzako esperientziak Florida parkean sartu zituen bertaratuak, eta bertako historian, faunan eta floran murgildu ziren.

Honako espezie hauek nabarmendu ziren: **ginkgo biloba, hagina, Libanoko zedroa, indi gaztainondo, sekuaia edo maitasunaren zuhaitza**.

Herritarren eta ingurunearen arteko elkarreraginak eta parte-hartzeak markatutako zentzumen-esperientzia.




INGURUMEN-INPAKTUAK

Ekitaldiaren ingurumen-inpaktuaren laburpena Eusko Legebiltzarraren ate irekien eguna

2023ko martxoaren 24a



Karbono-aztarna



GUZTIRA
EKITALDIAK

7.633
kg CO₂ bal.


PERTSONAKO



4
kg CO₂ bal.



Ur-aztarna



GUZTIRA
EKITALDIAK

114
m³ H₂O


PERTSONAKO



0,057
m³ H₂O



Ingurumen-aztarna



GUZTIRA
EKITALDIAK

794.537
mPt

PERTSONAKO



397
mPt



EMAITZAK

KARBONO- AZTARNA 7,63 t CO ₂	INTERPRETAZIOA
Mugikortasuna	% 91, partekatutako autoz iritsi ziren pertsoneri dagokiena; halere, azpimarratu behar da % 85 garraio iraunkorretan iritsi zirela.
Erosketak	% 5, kafetegiko cateringari (salda, kafea, opilak...) eta erakundeak egindako erosketen paper birziklatuari dagokiena.
Azpiegiturak	% 3, batez ere lurzoru binilikoagatik (sintasol) eta zoladura estaltzeko erabili zuten linolioagatik.
Energia	120 kg CO ₂ energia-industriaren zeharkako emisioekin lotzen dira.
Hondakinak	11 kg-ak zabortegean amaitzen diren hondakin mistoen ondorio dira.
Ura	8,22 m ³ kontsumitu ziren, eta ponpaketa-sistemetatik 3 kg CO ₂ baino ez zuten sortu.
AZTARNA HIDRIKOA 11,4 m ³	INTERPRETAZIOA
	Eragin hori, alde batetik, erosketek sortutako zeharkako ur-kontsumoagatik izan zen (% 66), batez ere jatorrian ekoiztako elikagaiengatik. Eta, bestetik, ekoizpen-prozesuetan (manufaktura eta erregaien erauzketa) zeharkako ura behar duen mugikortasunagatik (% 21). Eta % 8, energia-produkzioko hozte-sistemek sortzen duten energiagatik.
INGURUMEN- AZTARNA 794,53 Pt	INTERPRETAZIOA
	Arloek ingurumenaren gaineko eraginean izan zuten pisu erlatiboa eta horien garrantzia islatu zen. Mugikortasuna (% 89), erosketak (% 7), azpiegiturak (% 2) eta energia (% 2) izan ziren eragileak. Nabaria da mugikortasunak eragin handia duela baliabide fosilak agortzen ari direlako eta klima-aldaketagatik.

HOBETU BEHARREKO ARLOAK

Eusko Legebiltzarraren ate irekien egunean **hainbat hobekuntza** egin ziren, ingurumen-inpaktuak murrizteko eta ingurumenaren aldetik ekitaldi jasangarriago bat egiteko.

Horretarako, **ekomagiarekin eta ibilbide botanikoekin lotutako jarduerak** indartu zituen erakundeak.

Hurrengo urteetarako, **kotoi organiko berrerabilgarrien poltsak** erabiltzea eta jasangarritasunaren garrantzia azpimarratuz mezuak ematea proposatzen da. Horretarako, uste dugu **Legebiltzarreko lehendakariak** berak **aipatu behar duela "Erronka Garbia" ziurtagiria**.

Ondoriozta daiteke ekitaldia antolatu bezala egin zela eta bertaratuek jardunaldiaz gozatu ahal izan zutela **ingurune iraunkor eta kalitatezkoan**.



ERRONKA GARBIA

INGURUMEN ALDETIK
JASANGARRIA DEN EKITALDIA